ZARAUZKO UDALA

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS**
UDALAK BERE ERAIKINETAN SUTEEN ETA INTRUSIOEN AURKAKO DITUEN DETEKZIO ETA BABES INSTALAZIOETAN MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO-LANAK **2024IK200018**		**MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN DE LAS INSTALACIONES EXISTENTES DE DETECCION Y PROTECCION CONTRA INCENDIOS, Y ANTI INTRUSION EN LAS DEPENDENCIAS MUNICIPALES** **2024IK200018**
1.KONTRATUAREN XEDEA Plegu hauen xedea da baldintza batzuk jartzea Udalak bere eraikinetan suteen eta intrusioen aurka dituen detekzio eta babes instalazioen mantentze-zerbitzu prebentiboa eta zuzentzailea kontratatzeko. Kontratazioa honetan oinarritzen da: • Suteak itzaltzeko eta detektatzeko ekipoak. • Intrusioaren aurkako segurtasun-sistemak Plegu hauetan zerrendatuta datoz enpresa adjudikaziodunak egin beharreko eragiketak, horien maiztasuna eta derrigorrez bete beharreko baldintza guztiak. Prestazioen irismena hobeto garatuta badator ere dokumentu honetako beste puntu batzuetan, orokorrean, aipatutako instalazioek ondo funtziona dezaten bermatzeko behar diren mantentze-lan guztiak egitea izango da. Horien bidez, fidagarritasun, segurtasun eta sendotasun maila handi bat bermatuko da, une oro aplikagarria den araudiak finkatutako xedapenen arabera. Helburua da instalazioak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera ezin hobean edukitzea, haientzat jarritako legezko betebehar guztiak beteta. Horretarako, hauek izango dira kontuan: 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, suteen kontrako babes instalazioen erregelamendua onartzen duena; 5/2014 Legea, apirilaren 4koa, Segurtasun Pribatuarena;		**1. OBJETO DEL CONTRATO** Es objeto del presente Pliego regula las condiciones para la contratación de un servicio de mantenimiento preventivo y correctivo de las instalaciones existentes dependientes del Ayuntamiento. La contratación se basa en: • Equipos de extinción y de detección de incendios. • sistemas de seguridad anti-intrusión y de detección de incendios. El presente pliego contiene la relación de las operaciones a realizar, su frecuencia y todas las condiciones de obligado cumplimiento que deberá llevar a cabo la empresa adjudicataria. El alcance de las prestaciones, desarrollado en otros puntos de este documento, comprende la realización de todos los mantenimientos necesarios para garantizar el correcto funcionamiento de las referidas instalaciones, de manera que se asegure un alto grado de fiabilidad, seguridad y robustez, conforme a las disposiciones que marque la normativa de aplicación en todo momento. El fin perseguido es el de mantener las instalaciones en perfecto estado de conservación y funcionamiento, cumpliendo todas las exigencias legales establecidas para ellas. Para ello se deberá tener en cuenta el Real Decreto 513/2017, de 22 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de instalaciones de protección contra incendios, la Ley 5/2014, de 4 de abril, de Seguridad Privada, el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación y

314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, Eraikigintzaren Kode Teknikoa onartzen duena (eta ondorengo aldaketak); eta indarrean dagoen beste araudi aplikagarri guztia.		posteriores modificaciones, así como toda la normativa de aplicación que se encuentre vigente.
2. APLIKAZIO ESPARRUA		**2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN**
Zarauzko Udalaren eraikin guztiak sartzen dira kontratu honen aplikazio-esparruan (I eranskinean zerrendatutakoak), bai eta etorkizunean gehituko direnak ere (aldez aurretik kontratuaren adjudikaziodunari jakinaraziko zaio).		El ámbito de aplicación del presente contrato son los edificios pertenecientes al Ayuntamiento de Zarautz relacionados en el Anexo I, así como aquellos otros que en un futuro pudieran incorporarse al mismo previa comunicación a la empresa adjudicataria del contrato.
Enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen hasi aurreko egoeran hartuko ditu instalazioak. Gaur egun instalazioen mantentze-zerbitzua egiten duen enpresak emandakoak dira inbentarioetan azaltzen diren zerrendak.		La empresa adjudicataria asumirá las instalaciones en el estado en el que se encuentren previamente al inicio de la ejecución del Contrato. Los listados que aparecen en los inventarios han sido proporcionados por la empresa que actualmente realiza el servicio de mantenimiento de las instalaciones.
Kontratuaren hasieran, Udalak udal eraikin eta lokalen planoak emango dizkio enpresa esleipendunari. Udalak eranskinetan ematen dituen datuak orientagarriak dira. Enpresa adjudikaziodunak ezingo du argudiatu, inondik ere, instalazioetan aldaketak daudela, kontratuaren prezioa aldatu nahi izateko. Hori dela-eta, enpresa lizitatzaileek lehiaketaren xede diren instalazioak bisitatu ahalko dituzte, aurrez txanda hartuta.		Al inicio del contrato el Ayuntamiento facilitará a la empresa adjudicataria los planos de los edificios y locales municipales. Los datos que aporta el Ayuntamiento en los Anexos son orientativos. En ningún caso la empresa adjudicataria podrá prevalecerse de las diferencias que pudiese haber en las instalaciones para pretender un cambio en el precio contractual. A este respecto, y previa cita, las empresas licitadoras podrán visitar las instalaciones objeto de la licitación.
Sartuta daude, baita ere, instalazioen funtzionamendu eta segurtasunarekin lotutako instalazio erantsi guztiak, bai eta alarma-sistemekin zuzenean edo zeharka lotutako elementu guztiak ere.		Quedan incluidas además todas las instalaciones anejas relacionadas con su funcionamiento y seguridad, así como todos los elementos vinculados a los sistemas de alarma que incidan directa o indirectamente en ellos.
Hala eta guztiz ere, hasierako zerrenda hori ez da ez esklusiboa, ezta loteslea ere, higiezin horietan aldaketak egon daitezkeelako (bajak) edo I eranskineko zerrendan beste berri batzuk sar daitezkeelako (altak).		No obstante, esta relación inicial no tiene carácter exclusivo ni vinculante, debido a posibles cambios en estos inmuebles (bajas) o por nuevas incorporaciones (altas) al listado del Anexo I.

Ondorioz, instalazioetan baja bat edo alta bat gertatzen bada, kontratuaren prezioa aldatu egingo da, dagokion zenbatekoan, instalazio kopuruaren eta urteko kuota finkoaren araberako portzentajea aplikatuta.		Como consecuencia, el precio del contrato se verá alterado en la cuantía correspondiente en caso de baja o alta de instalación aplicando el correspondiente porcentaje teniendo en cuenta el número de instalaciones y la cuota fija anual.
Gainera, eraikin edo instalazio bat funtzionamenduan ez badago (xedapen administratibo bidez edo eraikinaren berezko beharrengatik), Zarauzko Udalari ez zaio fakturatuko egoera horretan dagoen hilabeteetako mantentze-lanen zenbatekoa; eta zirkunstantzia hori zehazki jasota geratuko da aldi horri dagokion fakturazioan.		Asimismo, si un edificio o instalación, no es funcionalmente operativo por disposición administrativa, o necesidades propias de los edificios, el importe de mantenimiento durante los meses afectados no será facturado al Ayuntamiento de Zarautz, quedando reflejado detalladamente en la facturación correspondiente durante ese periodo.
Mantentze-lanez gain, kontratistari beste obra batzuk ere adjudikatu ahalko zaizkio, instalazioak eta ekipoak egungo beharretara egokitzeko eta segurtasun-instalazioek bete beharreko baldintza eta berme teknikoen araudira egokitzeko. Horien aurrekontua apartekoa izango da, eta adjudikaziodunak derrigorrez bete beharko ditu. Fakturazioa egiteko, elementu-mota horien enpresek eskainitako prezio unitarioen zerrenda hartuko da oinarri gisa. Prezio unitarioen taulan sartu gabekoak, ordea, prezio kontrajarrien bidez kalkulatuko dira.		Independientemente de los trabajos de mantenimiento se podrán adjudicar a la empresa contratista la realización de otras obras de adecuación de las instalaciones y equipos a las necesidades actuales y a la normativa sobre condiciones y garantías técnicas a que han de someterse las instalaciones de seguridad con presupuesto independiente y de obligada realización por parte de la empresa adjudicataria sirviendo de base para su facturación el cuadro de precios unitarios ofertados por la empresa de elementos tipo. Los precios no incluidos en el cuadro de precios unitarios se calcularán mediante precios contradictorios.
3. JARDUERA OROKORRAK		**3. ACTUACIONES GENERALES**
Kontratuaren kontura egingo diren lanen artean hauek sartzen dira: batetik, mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak, eta, bestetik, dokumentu honetan zehaztu gabe badaude ere, berez beharrezkoak direnak kontratuaren formalizazioaren egunean indarrean dagoen araudia betetzeko.		Dentro de los trabajos se incluyen, con cargo al contrato, los mantenimientos preventivo y correctivo, así como aquellos otros trabajos especiales que no se detallen en el presente documento y que sean necesarios para el cumplimiento de la normativa vigente en la fecha de formalización del contrato.
Sartuta daude, baita ere, ekipoak eta zentralak deskonektatzea eta gero martxan jartzea, obrengatik edo beste arrazoi batengatik gelditu ondoren.		Se incluyen asimismo los trabajos necesarios de desconexión y posterior puesta en marcha de equipos y centralitas, tras paradas por obras u otros motivos.

Behar bezala eta kosturik gabe artatu beharko dira jabetzak markatutako larrialdi simulakroak; alegia, eragindako instalazio guztiak doitzeko eta berriz martxan jartzeko zereginetan inplikatutako lan guztiak egingo dira.		Se atenderán correctamente y sin coste alguno los simulacros de emergencia marcados por la propiedad, realizando los correspondientes trabajos implicados de puesta a punto y rearmado de todas las instalaciones afectadas.
Era berean, sartuta daude zentroetako udal erabiltzaileen informazio eta prestakuntza saioen lan guztiak. Informazio edo prestakuntza ikastaro horiek (kopurua eta forma) Udalaren irizpidearen arabera egingo dira.		Igualmente quedan incluidos los trabajos de información-formación de los usuarios municipales de los centros, quedando a criterio del Ayuntamiento el número y forma de realizarse dichos cursos informativos o formativos.
Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu nahi gabe edo bere zabarkeriaren ondorioz hondatutako piezen edo elementuen konponketak edo ordezkapenak.		Las reparaciones o sustituciones de piezas o elementos deteriorados accidentalmente o por negligencia de la empresa adjudicataria serán asumidas por dicha empresa adjudicataria.
Funtzionamenduan dauden ekipoen instalazio elektrikoa berrikusiko da, eta alarma-ekipoak babesteko magnetotermikoa behar bezala etiketatuko da (bai intrusioen aurkakoak bai suteak detektatzekoak). Horri dagokionez, magnetotermiko baten mendean instalazio bat baino gehiago badago, jakinarazi egin beharko zaio Udalak izendatutako solaskideari.		Se revisará la instalación eléctrica en equipos en funcionamiento y se identificará. Etiquetando correctamente el magnetotérmico de protección de los equipos de alarma tanto sean de anti intrusión como detección de incendios. A este respecto, si hubiera más de una instalación dependiente de un mismo magnetotérmico, deberán comunicarlo a la persona interlocutora designada por el Ayuntamiento.
Kontratuan sartutako edozein eraikinetan aldaketak egin behar badira kontratuaren indarraldian zehar sortzen den araudira egokitzeko, horren berri emango zaio solaskideari, eta aldaketa horrek ez du inolako ondorio ekonomikorik izango.		Se informará a la persona interlocutora designada por el Ayuntamiento si fuera necesario realizar modificaciones para adaptar a la normativa que pudiera surgir durante la vigencia del contrato, en cualquiera de los edificios incluidos en el Contrato, sin ninguna repercusión económica por ello.
Hirugarrenek obrak egin behar badituzte kontratu honen xede diren eraikinetan eta instalazioetan, adjudikaziodunak laguntza eman beharko du, Udalak izendatutako solaskideak hala eskatzen badio.		La empresa adjudicataria, a solicitud de la persona interlocutora designada por el Ayuntamiento, deberá prestar asistencia en caso de realización de obras por terceros en los edificios e instalaciones objeto del presente Contrato.
Laguntza horretan hauek sar daitezke: bai aurreko lanak (segurtasun sistemari buruzko aholkularitza teknikoa, bateragarritasunak, balizko hobekuntzak…), bai lanak egin ondoren ekipoak eta elementuak kontrolatzea eta		Dicha asistencia podrá consistir en labores previas, como asesoramiento técnico sobre los sistemas de seguridad, compatibilidades, posibles mejoras... y también en control y supervisión de los equipos y elementos tras la ejecución de los trabajos, debiendo emitir en el plazo de 5 días informe sobre

begiratzea. 5 eguneko epean txosten bat egingo du funtzionamendu onari edo antzemandako anomaliei buruz. Udalak izendatutako solaskideari ere aholkatu beharko dio, hark eskatzen dioenean eta kostu ekonomikorik gabe, bai kontratu honetan sartutako elementuekin lotutako gaiei buruz bai kontratuaren indarraldian zehar sartzeko interesgarriak izan daitezkeen unitate berriei buruz. Behar diren gestio eta legezko agiriak egingo ditu, aplikazio-esparruari dagozkion erakunde eskudunetan, Jabetzaren izenean. Bera arduratuko da: a) instalazioei altak edo bajak emateko tramiteez; b) lehendik daudenen aldaketez; eta c) intzidentzien konponketak Lurralde Erakunde eskudunari jakinarazteaz. **4. MANTENTZE-LANEN PLAN OROKORRA**: Lizitatzaileek, zerbitzuaren xede diren instalazioen zerrendan oinarrituta (II eranskina), euren eskaintzetan zerbitzu bakoitzerako Mantentze-lanen Plan Orokorra urkeztuko dute. Gutxienez honako hauek sartuko dira: o Mantentze-lan prebentiboen programazioa; mantentze-lan zuzentzaileen lan-ordutegia; laneko ordutegi barruko jardueren erantzun-epea (bai eta baldintza teknikoen agirian araututako 24 orduko zerbitzuan ere); egiten den abisu-mota bakoitzean jarduteko sistemak; kontratuan adskribatutako giza baliabideak eta bitarteko teknikoak; eta zerbitzuari eragiten dion beste edozein espezifikazio. o Mantentze-lanen xede diren instalazioen Inbentarioa zehazteko erabiliko duen taularen edo dokumentuaren eredua.	su correcto funcionamiento o anomalías detectadas. Asimismo, asesorará a la persona interlocutora designada por el Ayuntamiento, cuando lo solicite y sin coste económico algún, en cuestiones relacionadas tanto con los elementos incluidos en este Contrato como sobre otras unidades nuevas que sean de interés incluir a lo largo de la vigencia del mismo. En representación de la Propiedad, realizará las gestiones y documentos legales oportunos ante los Organismos competentes que corresponda en el ámbito de aplicación. Se encargará de realizar los trámites para dar de alta o baja instalaciones, modificaciones de las ya existentes, y notificación de corrección de incidencias ante el Organismo Territorial competente. **4. PLAN GENERAL DE MANTENIMINETO:** Los licitadores, en base al listado de instalaciones objeto del servicio (Anexo II), deberán presentar en su oferta el Plan General de Mantenimiento para cada servicio que deberá contener como mínimo: o Programación de los trabajos de mantenimiento preventivo, los horarios de trabajo del mantenimiento correctivo, los plazos de respuesta de las actuaciones dentro del horario de trabajo, así como en el servicio de 24 horas regulado en el pliego de prescripciones técnicas, los sistemas de actuación para cada tipo de aviso que se realice, recursos humanos y técnicos adscritos al contrato, así como cualquier otra especificación que afecte a la realización del servicio. o Modelo de la tabla o documento que utilizará para detallar el Inventario de las instalaciones objeto de mantenimiento

o Instalazio horiek ekipo eta elementuetan nola banakatu zehazteko erabiliko den taularen edo dokumentuaren eredua, kontuan hartuta elementuak taldetan bil daitezkeela (berez, instalazioaren barruan, funtzio osoa eta homogeneoa egiten dutenak). o Mantentze-lanen protokoloak, ekipo edo elementu bakoitzaren mantentze-lanetarako behar diren eragiketa-multzoak, eta eragiketen maiztasuna eta horiek egiteko aurreikusitako epeak zehazteko erabiliko den taularen edo dokumentuaren eredua. o Eragiketak egiteko aurreikusitako baliabide teknikoak eta gizatiarrak. o Aldizkako zerbitzuak eta/edo espezializatuak egiteko aurreikusitako baliabideak. o Berrikusteen Ziurtagiriak eta txostenak aurkezteko epeak (inoiz ezingo dira 30 egunetik gorakoak izan). Mantentze-lanen Plan Orokorrarekin, modu arin eta eraginkorrean kudeatuko dira zerbitzuak eta horien kontrola, eta planak behar den guztia edukiko du plegu hauetako xedea era iraunkorrean, osorik eta ondo betetzeko. Jabetzak aukera izango du enpresa kontratistak proposatutako planifikazioa aldatzeko, uste badu ez zaiola egokitzen mantentze-lanen xede diren espazioetako beharrei. **5. ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK:** <u>5.1 ZENTRALAK BIRPROGRAMATZEA</u>		o Modelo de la tabla o documento que utilizará para detallar el desglose de estas instalaciones en equipos y elementos, teniendo en cuenta las posibles agrupaciones de los elementos que constitutivamente realizan una función completa y homogénea dentro de la instalación o Modelo de la tabla o documento que utilizará para detallar los protocolos de mantenimiento, el conjunto de operaciones necesarias para el mantenimiento de cada equipo o elemento, así como la periodicidad de las operaciones y tiempos previstos para su realización o Recursos técnicos y humanos previstos para la realización de las operaciones o Recursos previstos para la realización de servicios ocasionales y/o especializados o Plazos para entrega de Certificados e Informes de Revisión, que en ningún caso podrá ser superior a 30 días El Plan General de Mantenimiento deberá permitir una gestión ágil y eficaz de los servicios y su control, y contendrá todo lo necesario para llevar a cabo de manera permanente, completa y satisfactoria la totalidad del objeto del presente pliego. La Propiedad se reserva la posibilidad de modificar la planificación propuesta por la empresa contratista si considerase que no se adecúa a las necesidades del espacio objeto del mantenimiento. **5. PRESTACIONES DEL SERVICIO:** <u>5.1 REPROGRAMACIÓN DE LAS CENTRALES</u>

o Sute eta intrusio zentraletako ekipoen eta guneen deskribapena birprogramatzea. o Zentro bakoitzeko sute eta intrusio-zentralak birprogramatzea. o Intrusio-zentralean 2 sute-gune programatzea, halakorik egiten lagatzen badu: sute-alarma eta sute-aberia (dagoen sute-gunearen ordez). o Intrusio-zentralean gasa detektatzeko gune 1 programatzea, halakorik egiten lagatzen badu. o Sutea detektatzeko zentralean 2 irteera programatzea, oinezkoentzako ate motordunak irekitzeko sistemarekin eta igogailuen maniobra-taularekin komunikatzeko, baldin eta instalazioak behar diren ekipamentuak baditu programazio hori egiteko. o Beste zona batzuen programazioa, hala behar duten instalazioetan eta baldin zentralak uzten badu, sistema desberdinekin komunikatzeko (klima, oihalak…). o Udaltzaingoarekiko konexioak programatu. o Erakunde kontratatzaileak hornituko ditu sute-zentralen eta intrusioen aukakoen programaziora sartzeko kode teknikoak. Kontratua bukatzen denean, mantentze-lanen enpresak derrigorrez emango dizkio kode horiek erakunde kontratatzaileari. o Erakunde kontratatzaileak emango ditu intrusio-zentrala armatzeko eta desarmatzeko erabiltzaile-kodeak (baita zerbitzu teknikoarenak eta laguntzarenak ere). 5.2 MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA Mantentze-lanetan programatutako jarduerak egitea izango da helburua, instalazioak	o Reprogramación de la descripción de los equipos y de las zonas de las centrales de incendio e intrusión o Reprogramación de las centrales de incendios e intrusión de cada centro o Programación de 2 zonas de incendio en la central de intrusión, si ésta lo permite: alarma de incendio y avería de incendio, en sustitución a la zona de fuego existente o Programación de 1 zona de detección de gas en la central de intrusión, si ésta lo permite o Programación de 2 salidas en la central de detección de incendios para comunicación con el sistema de apertura de puertas peatonales motorizadas y el cuadro de maniobra de los ascensores, siempre y cuando la instalación disponga de los equipamientos que permitan efectuar dicha programación o Programación de otras zonas, en aquellas instalaciones que lo requieran y si la central lo permite, para comunicación con diferentes sistemas (clima, telones...) o Programar las conexiones con la policía municipal. o Los códigos técnicos de acceso a la programación de las centrales de incendio y contra intrusión serán suministrados por la entidad contratante. A la finalización del contrato, la empresa mantenedora estará obligada a facilitar dichos códigos a la entidad contratante o Los códigos de usuario (incluso los del servicio técnico y acuda) para armado y desarmado de la central de intrusión serán suministrados por la entidad contratante. 5.2. MANTENIMIENTO PREVENTIVO Este mantenimiento tiene por objeto fundamental las actuaciones programadas de mantenimiento para la conservación de las instalaciones en las

segurtasun, fidagarritasun eta prestazio baldintza gorenetan egon daitezen.		máximas condiciones de seguridad, fiabilidad y prestaciones.
513/2017 Errege Dekretuko eta Segurtasun Pribatuaren 5/2014 Legeko I, II eta III tauletan programatutako mantentze-lanen jarduerak garatu beharko dira, zehaztutako maiztasunarekin, eta enpresa lizitatzaileak eskainitako Mantentze-lanen Plan Orokorrean zehaztuta egongo dira.		Las actividades a desarrollar son las correspondientes al mantenimiento programado en la Tabla I, II y III del RD 513/2017 (RIPCI) y Ley 5/2014 (Seguridad Privada), con la frecuencia que se detalla, y vendrá determinado por el Plan General de Mantenimiento ofertado por la empresa licitadora.
Enpresa lizitatzaileak mantentze-lanen protokolo bat aurkeztuko du, mantendu beharreko sistema bakoitzerako.		La empresa licitadora deberá presentar un protocolo de mantenimiento para cada uno de los sistemas a mantener.
Azterketa bakoitzean egiaztatuta geratu beharko da instalazioa osatzen duten elementu guztiak behar bezala funtzionatzen dutela. Egindako azterketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du enpresa adjudikaziodunak, egindako frogekin ados dagoela edo ez dagoela adierazita.		En cada revisión deberá quedar verificado el correcto funcionamiento de todos los elementos que integran la instalación. La empresa adjudicataria deberá entregar la documentación que acredite la revisión realizada reflejando la conformidad o no con las pruebas realizadas.
Elementuen mantenimendua egiteko bere lekutik kendu beharra gertatzen bada, ez dauden bitartean ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira horien ordez.		Los elementos que sean retirados de su ubicación para realizar operaciones de mantenimiento deberán ser sustituidos durante su ausencia por otros de características idénticas.
5.3 MANTENTZE-LAN ZUZENTZAILEA		5.3. MANTENIMIENTO CORRECTIVO
Instalazioen erabileratik eta kontserbaziotik eratorritako oharretatik abiatuta egiten dira nagusiki mantentze-lan zuzentzaileak, eta horien helburua da eragindako zerbitzua lehenbailehen berreskuratzea.		El mantenimiento correctivo interviene principalmente a partir de las observaciones derivadas de las tareas de manejo y vigilancia de las instalaciones y tiene como objeto el restablecimiento inmediato del servicio afectado.
Beharrezkoa da Adjudikaziodunak bitarteko egoki guztiak jartzea, ekipoak ahalik eta denbora laburrenean martxan jartzeko eta pertsonen eta instalazioen segurtasuna une oro bermatzeko.		Es necesario que la empresa adjudicataria ponga todos los medios adecuados para que los equipos queden en servicio en el menor tiempo posible y garantizar en todo momento la seguridad de las personas y las instalaciones.
Enpresa adjudikazioduna 2 ordutik beherako epean joango da, pertsonal tekniko kualifikatuarekin, aberia/intzidentzia guztietara, Mantentze-lanen Planean		La empresa adjudicataria acudirá, con personal técnico cualificado, a todas las incidencias de averías dentro del horario propuesto en el plan de mantenimiento, en un plazo inferior a 2 horas. Desde que tengan conocimiento de las mismas, bien porque se reciba una señal de alarma, bien

proposatutako ordutegian, horien berri jasotzen duenetik (alarma-seinale bat jaso duelako, zentrotik bertatik jakinarazi diotelako, edo beste edozein bitartekoren bidez). Enpresa adjudikaziodunak aberiaren jatorria kokatuko du, eta berehala konponduko dute (ahal denean) hondatutako osagaiak aldatuta.		porque se comunique desde el propio centro o por cualquier otro medio. La empresa adjudicataria localizará el origen de las averías y las repararán de inmediato cuando sea posible, sustituyendo los componentes deteriorados.
Orokorrean, astelehenetik ostiralera, enpresak bere Mantentze-lanen Plan Orokorrean proposatutako ordutegian egingo dira mantentze-lan zuzentzaileak.		De manera general, el mantenimiento correctivo se realizará dentro del horario propuesto por la empresa en su Plan General de Mantenimiento de lunes a viernes.
Konponketa bat berehala egitea ezinezkoa denean (sistemaren zati bat edo sistema osoa aldatzea beharrezkoa delako), berehala jakinaraziko zaio udal arduradunari, posta elektroniko bidez edo harekin adostutako bitartekoen bidez.		Cuando no sea posible su reparación inmediata por necesitar de la sustitución parcial o total del sistema, se notificará inmediatamente al responsable municipal vía correo electrónico, u otros medios que se acuerden con él.
Baldin aberia baten ondoren segurtasun-sistema bat partzialki edo osorik ordezkatzen bada, eta aldaketa hori mantentze-lanen kontratuaren epearen barruan gertatzen bada, mantentze-lanen enpresa arduradunak nahitaez konektatu beharko du sistema berria alarmak jasotzeko zentralarekin (baldin elementu homologatuak baditu), nahiz eta sistema hori berez beste enpresa batek jarri. Gainera, pleguetan jasotako zerbitzu guztiak egiten jarraitu beharko du baldintza berberetan.		Si como consecuencia de avería se llevara a cabo la sustitución parcial o total de un sistema de seguridad y ésta se produjera durante el plazo de duración del contrato de mantenimiento, la empresa encargada del mismo tendrá la obligación de conectar en la central receptora de alarmas el nuevo sistema (siempre que éste cuente con elementos homologados), aunque se hubiera instalado por empresa distinta. Así mismo, tendrá la obligación de continuar realizando en las mismas condiciones todos los servicios que se recojan en el pliego correspondiente.
Konpondu beharreko elementuak eta piezak aparte kobratuko dira, enpresa kontratistak aurkeztutako prezio unitarioekin bat etorriz. Prezio unitarioak jasotzen ez badira, prezio kontrajarrien bidez egingo da; bertan, aberia kasuetarako eskulana eta desplazamendua ere sartuko dira.		Los elementos y piezas a reponer se cobrarán aparte de acuerdo con los precios unitarios presentados por la empresa contratista. En el caso que no se recojan en los precios unitarios se realizará mediante precios contradictorios, que tendrá que tener incluido la mano de obra y el desplazamiento en caso de avería.
Enpresa adjudikaziodunak ondorengo zerbitzuak eman beharko ditu, eta jarraian adierazitako baldintzetan:		La empresa adjudicataria tendrá que prestar los siguientes servicios y en las condiciones señaladas a continuación:

Aberia edo bestelako intzidentziei erantzun, horiek konpontzeko jarritako gehienezko epeetan, eta zerbitzua berehala martxan jarri, behar diren ekipoak konponduta, ondorengo baldintzen arabera: o Zerbitzua berreskuratzeko denbora: gehienez 2 orduko epean berreskuratuko da zerbitzua. Horretarako, zerbitzu teknikoak, ahal dela, berehala konponduko ditu ekipoak, sistemak edo instalazioak, egunean 24 ordutan eta urtean 365 egunetan. o Aberiaren konponketa: zerbitzua berreskuratu ondoren, gehienez 48 orduko epea egongo da aberia guztiz konpontzeko. Edonola ere, ekipoak, sistemak edo instalazioak guztiz konponduta geldituko dira, abisua jasotzen denetik 48 orduko epean. o Intzidentzien partea: dagokion partean jasota geratuko dira intzidentzia guztiak. Parte horretan, intzidentzia deskribatuko da, eta ondorengo oharrak idatziko dira: data, intzidentzia konpondu duen teknikaria, konponketaren denbora, eta erabilitako material mota eta kopurua. Txosten hori Udalari bidaliko zaio, posta elektroniko bidez, gehienez 24 orduko epean; kopietako bat erregistroen liburuan sartuko da. **6.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOAREN BALDINTZAK** 6.1. ZERBITZUAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAREN KUDEAKETA Enpresa kontratistak, Udalari inolako kosturik eragin gabe, ***eraikin bakoitzaren memoria teknikoa aurkeztu beharko du urtero****, honako informazio honekin:*		Respuesta a incidencias por avería u otros, dentro de los plazos máximos establecidos para la reparación de las mismas, y puesta en marcha del servicio de forma inmediata reparando los equipos necesarios en su caso, de acuerdo con las siguientes condiciones: o Tiempo para el restablecimiento del servicio: se deberá restablecer el servicio en el plazo máximo de 2 horas, reparando de forma inmediata los equipos, sistemas o instalaciones que sea posible, por parte del servicio técnico las 24 horas del día y los 365 días del año. o Reparación de la avería: una vez restablecido el servicio, el plazo para la reparación completa de la avería se alargará en un plazo máximo de 48 horas. En cualquier caso, los equipos, sistemas o instalaciones deberán quedar reparados en su totalidad en el plazo de 48 horas desde el aviso. o Parte de incidencias: todas las incidencias quedarán recogidas en el correspondiente parte. En dicho parte se hará una descripción de la incidencia, y se anotará la fecha, el nombre del técnico que atiende a la incidencia y el tiempo de resolución, así como el tipo y la cantidad del material empleado. Este parte deberá ser remitido vía correo electrónico al Ayuntamiento en un plazo máximo de 24 horas, y una de las copias deberá ser incluida en el libro de registro. **6.- CONDICIONES DE LA PRESTACION DE LOS SERVICIOS** 6.1. GESTION DE LA DOCUMENTACION TECNICA ASOCIADA AL SERVICIO En general, la empresa contratista, sin coste alguno para el Ayuntamiento, deberá presentar ***anualmente una memoria técnica de cada edificio*** *que contendrá la siguiente información:*

1. Zerbitzuen instalazioen egoera zuzenaren ziurtagiria. 2. Kontratuaren xede diren instalazioen inbentario eguneratua. Udalak emandako planoetan irudikatuko dira instalazioen osagai diren elementu guzti-guztiak eta horien kokapena. PDF, Excel eta/edo autocad formatuan aurkeztuko da dokumentazio hori. 3. Horrez gain, enpresa esleipendunak oinarrizko sistemen eta elementuen inbentarioaren eguneratzea aurkeztu beharko du. Eguneratze hori kontratuaren lehen hiru (3) hilabeteetan eta mugaeguna baino lau (4) hilabete lehenago aurkeztu beharko da, formatu elektronikoan, erregistroaren bidez. 4. Baldin eta jarritako sute- eta/edo segurtasun-sistemaren bat gerora aldatu egiten bada eta funtsean jatorrizkoa aldatzen badu (osorik edo zati batean), mantentze-lanen enpresak instalazio, erabilera eta mantenimenduko eskuliburu berriak egin beharko ditu, eta instalazio horren planoak ere eguneratu egingo ditu, baldin eta aldaketak eragin badie. 5. Egindako jarduerak: eguna, abisuaren ordua, iritsiera-ordua eta bukaera-ordua, egindako jarduera, aritu diren langileak, arrazoiak eta irtenbideak. 6. Aldaketen, zabaltzeen eta berrikuntzen erregistroa. 7. Baimendutako lan osagarriak. Laburbilduz, kontratua hasten denetik amaitzen den arte, eraikinaren egungo egoerari eta urtean zehar instalazioetan sortu diren	1. Certificado de estado correcto de las instalaciones de los distintos servicios. 2. Actualización del inventariado de las instalaciones objeto del contrato mediante la representación en los planos facilitados por el Ayuntamiento de todos y cada uno de los elementos que componen las instalaciones, con su ubicación en los planos. Dicha documentación será presentada en formato pdf, Excel y/o autocad. 3. Adicionalmente, la empresa adjudicataria deberá presentar la actualización del inventario de los sistemas y elementos básicos que los componen. Dicha actualización deberá presentarse dentro de los tres (3) primeros meses del contrato y cuatro (4) meses antes de su vencimiento, en formato electrónico mediante el registro. 4. En el caso de que un sistema de incendio y/o seguridad instalada sufra alguna variación posterior que modifique sustancialmente el originario, en todo o en parte, la empresa de mantenimiento vendrá obligada a confeccionar nuevos manuales de instalación, uso y mantenimiento, así como la correspondiente actualización de los planos de dicha instalación que se hubieran visto afectados por dicha variación. 5. Las actuaciones realizadas, la fecha, hora de aviso, hora de llegada y hora de terminación, la actuación realizada, personal que actúa, causas y soluciones. 6. Registro de modificaciones, ampliaciones y reformas. 7. Los trabajos adicionales autorizados. En resumen, desde el inicio del contrato y hasta su finalización, se debe presentar un informe anual sobre la situación actual del edificio y los problemas que han surgido durante el año en las instalaciones. La memoria debe incluir lo siguiente:

arazoei buruzko urteko txostena aurkeztu behar da. Memoriak honako hau jaso behar du:

1. ***Eraikinaren egungo egoera:***
   - Instalazioen egoeraren deskribapen zehatza.
   - Egoera garrantzitsuen argazkiak.
   - Instalazioen ziurtagiriak

2. ***Segurtasun-zentralak eta -sistemak:***
   - Zentraletan erabilitako kodeak.
   - Zentral bakoitzaren funtzionamendua zein den.
   - Zentral bakoitzaren jarraibideak.
   - Sistemen fitxa teknikoak
3. ***Mantentze-lanak eta eguneratzeak:***
   - Urtean zehar egindako mantentze-lanak.
   - Aparatuen eta elementuen kokapena adierazten duten planoak.
   - Sistemen eta elementuen inbentario eguneratua.
   - Aldaketen, handitzeen eta erreformen erregistroa.
4. ***Hobekuntzak eta gomendioak:***
   - Instalazioak hobetzeko iradokizunak.

Mantentze-lan zuzentzaileek eragindako jarduerek sortutako fakturak baliozkotzeko eta onartzeko, hauek aurkeztuko zaizkio udal arduradunari: faktura bera eta dagokion hilean egin diren jarduera guztien zerrenda (besteak beste, data, abisu-ordua, iriste-ordua eta bukaera-ordua, egindako jarduera, aritu diren langileak, etab. adierazita).

7.-MANTENTZE-LANEN ERREGISTROAREN LIBURUA

1. ***Situación actual del edificio:***
   - Descripción detallada del estado de las instalaciones.
   - Fotos de las situaciones relevantes.
   - Certificados de las instalaciones

2. ***Centrales y sistemas de seguridad:***
   - Códigos utilizados en las centrales.
   - Funcionamiento de cada central.
   - Instrucciones de cada central.
   - Fichas técnicas de los sistemas.

3. ***Mantenimiento y actualizaciones:***
   - Mantenimiento realizado durante el año.
   - Planos con la ubicación de los aparatos y elementos.
   - Inventario actualizado de los sistemas y elementos.
   - Registro de modificaciones, ampliaciones y reformas.

4. ***Mejoras y recomendaciones:***
   - Sugerencias de mejoras para las instalaciones.

Para la validación y aceptación de las facturas generadas de aquellas actuaciones derivadas del mantenimiento correctivo, se deberá presentar al responsable municipal junto con la factura, la relación de todas las actuaciones realizadas en el mes correspondiente, indicando entre otros aspectos: la fecha, hora de aviso, hora de llegada y hora de terminación, la actuación realizada, personal que actúa, etc.

7.-LIBRO DE REGISTRO DE MANTENIMIENTO

Kontratuaren xede diren instalazioen zentro bakoitzeko MANTENTZE-LANEN ERREGISTRO-LIBURU bat irekiko da gutxienez, eta bertan edukiko dute. Erregistro-liburu horretan, elementuen eta osagaien deskribapena azalduko da gutxienez, eta hauek adieraziko dira: ezaugarri teknikoak, marka, modeloa, tipoa eta haren funtzionamendu eta mantentze-lanetan eragina duten zirkunstantzia guztiak. Deskribapena eskemekin eta planoekin osatuko da, ahal bada behintzat. Liburu hori paper formatuan eta formatu elektronikoan egongo da.		Se abrirá al menos un libro de registro de mantenimiento por cada centro de las instalaciones objeto del contrato que permanecerá en el mismo, en el que figurará como mínimo la descripción de los elementos y componentes, expresando sus características técnicas, la marca, modelo, el tipo y cuantas circunstancias incidan sobre su normal funcionamiento y mantenimiento. Se completará la descripción con esquemas y planos, siempre que ello sea posible. Este libro estará tanto en formato papel como en formato electrónico.
Intrusioen instalazioentzako BERRIKUSPENEN ERREGISTRO-LIBURUA edukiko du enpresak. Horien ereduak bat etorriko dira Barne Arazoetako Ministerioak onartutako arauekin, eta aukera emango dute tratamendu eta artxibo mekanizatua eta informatizatua egiteko.		Para las instalaciones de intrusión, la empresa llevará libros de registro de revisiones, cuyos modelos se ajusten a las normas que se aprueben por el Ministerio de Interior, de forma que sea posible su tratamiento y archivo mecanizado e informatizado.
8.- BERRIKUSPENEN MAIZTASUNA ETA LANEKO PARTEAK		**8.- FRECUENCIA DE LAS REVISIONES Y PARTES DE TRABAJO**
Indarrean dagoen araudian definituta dago suteen kontrako alarma-instalazioen zerbitzuetarako berrikuspenen gutxieneko maiztasuna (irismena barne).		La frecuencia mínima de las revisiones para los servicios (incluir alcance) de las instalaciones de alarmas contra incendios viene definida según la normativa vigente.
9.- INSTALAZIOEN GARBIKETA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA		**9.- LIMPIEZA DE LAS INSTALACIONES Y GESTION DE RESIDUOS**
Kontratistak aurkitu zituen egoera berean lagako ditu zentroak, eta bera arduratuko da bere lanen ondorioz sortutako edozein hondakin jasotzeaz.		La empresa contratista se preocupará de dejar los centros en el mismo estado en que los encontró, haciéndose cargo de la retirada de cualquier residuo consecuencia de sus trabajos.
Erakunde kontratatzaileak hondakinen kudeaketarako jarrita dituen prozedurak beteko direla bermatuko du kontratistak. Hondakinen kudeaketari dagokionez indarrean dagoen araudia beteko du.		La empresa contratista garantizará el cumplimiento de los procedimientos establecidos por la entidad contratante para la gestión de residuos. Cumplirá la normativa vigente en relación a la gestión de residuos.

10.- KONTRATUA GAUZATZEKO BEHAR DIREN GIZA BALIABIDEAK Instalazioen mantentze-lanak egiteko langileak behar bezala espezializatuta eta entrenatuta egongo dira, bete beharreko lanpostuaren berezko jardueretarako. Zehazki, plegu hauetan eskatutako zerbitzuen instalazioetan espezializatutako teknikariak edukiko ditu enpresa adjudikaziodunak, egiaztatutako prestakuntza eta esperientziarekin, mantentze-lan prebentiboen eta zuzentzaileen zerbitzuak egiteko. Gainera, zerbitzuen koordinatzaile bat ere behar da. Ordezkari bat izendatuko da (aipatutako izenarekin), eta, Udalak onartu ondoren, gaitasuna izango du honako hauek egiteko: o Kontratistaren ordezkari gisa jardungo du, zerbitzua ondo eta martxa onean bete dadin. o Zerbitzua antolatuko du, eta Zuzendaritzatik jasotako aginduak praktikan jarriko ditu. o Lanean sortzen diren arazoen ebazpenak proposatu edo Zuzendaritzarekin batera konponduko ditu. o Eskuratzen dituen datu pertsonalen arduraduna izango da. **11.- KONTRATUA GAUZATZEKO BEHAR DIREN BITARTEKO MATERIALAK: ORDEZKO PIEZA** Kontratistak ordezko pieza nahikoak eta kalitatekoak edukiko ditu (stock), eskainitako denborak betetzeko; helburua da funtzionamendurik gabeko aldirik ez egotea, ordezko piezarik ez edukitzeagatik. Egun indarrean dagoen araudia beteko du, eta araudiak jarritako berrikuspen eta/edo	**10- RECURSOS HUMANOS NECESARIOS PARA LA EJECUCION DEL CONTRATO** El personal destinado al mantenimiento de las instalaciones ha de estar convenientemente especializado y entrenado en las actividades propias del puesto a desempeñar. En concreto, la empresa adjudicataria deberá contar para la ejecución de los servicios de mantenimiento preventivo y correctivo a técnicos especialistas en instalaciones de los servicios en este pliego solicitados con formación y experiencia acreditada. Asimismo, se requiere de la figura de una persona coordinadora de servicios. Se deberá designar una persona delegada con la denominación citada que, una vez aceptado por el Ayuntamiento, deberá tener capacidad suficiente para: o Ostentar la representación de la empresa contratista en orden a la ejecución y buena marcha del servicio. o Organizar la ejecución del servicio, y poner en práctica las órdenes recibidas de la Dirección. o Proponer o colaborar con ésta en la resolución de los problemas que se planteen durante la ejecución. o Ostenta la figura de encargado de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso. **11.- MEDIOS MATERIALES NECESARIOS PARA LA EJECUCION DEL CONTRATO: REPUESTOS** La empresa contratista dispondrá de la dotación suficiente y de calidad adecuada de repuestos (stock), para el cumplimiento de los tiempos ofertados, con la finalidad de evitar tiempos de no funcionamiento por ausencia de repuestos. Ha de acogerse a la normativa actual vigente y disponer si lo requiere de las correspondientes revisiones y/o homologaciones establecidas por normativa.

homologazioak edukiko ditu, beharrezkoa izanez gero. **12.- ZERBITZUAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKARITZA** Zarauzko Udalak beteko du zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskaritza. Berak emango dizkio kontratistari zerbitzua normal eta eraginkortasunez betetzeko behar diren jarraibideak. Adjudikaziodunak konponduko ditu kontratuaren xede diren mantentze-lanak ez egiteagatik ikuskapen horretan jasotako gabeziak eta hutsuneak, erakunde kontratatzailearentzat inolako kosturik gabe. **13.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA** Enpresa adjudikaziodunak laneko arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia beteko du, eta eraikin bakoitzerako jarritako segurtasun-neurriak errespetatuko ditu.		**12.- DIRECCIÓN E INSPECCIÓN DEL SERVICIO** La dirección e inspección del servicio corresponde al Ayuntamiento de Zarautz, quien dictará las instrucciones necesarias a la empresa contratista para la normal y eficaz realización del servicio. La empresa adjudicataria deberá subsanar las carencias y deficiencias que se recojan en dicha inspección, imputables a deficiencias de mantenimiento objeto del contrato, sin coste alguno para la entidad contratante. **13.- PREVENCION DE RIESGOS LABORALES** La empresa adjudicataria cumplirá con la legislación vigente en materia de prevención de riesgos laborales y respetarán las normas de seguridad establecidas para cada edificio.